

# GUTUNA, SARRERAZKO JARDUN GISA

**Bitaiño:**

Zuk ipuin liburu batentzat hitzaurrea eskatu ondo-rean, lehentxo batean, Xabier Kintana adiskideak zioen li-buruen hitzaurrerik inork ez duela irakurtzen. Ez dakit nik hau hala den, baina nik neuk liburuak baino heuren hitzau-reak aisago irakurtzen ditut. Konsulta liburuak direnean zer esanik ere ez.

Zure hau ordea ezta konsulta liburua, ez edonolako irakurgaina, baizik ipuin bilduma; haurren atsegina eta inoiz haurren zentzunera bihurtzeko premia agertzen diren adinezkoen solasa; honegatik, kasu honta behintzat, X. Kin-tanak arrazoiak zuela iduritzen zait. Eta, hau hala bada, zertako egin hitzaurre bat? Haur ipuin zaleentzat edo

ipuinen bidez haurren kideko itzultzen diren adinekoentzat, ipuin liburu baten hitzaurrea alperrikako jarduna iduritzen zait. Hoiiek, benetako ipuin zale direnok, gaira zuzenean joatea nahaiago dute. Hala uste dut eta ondo deritizat gainera.

Uste honekin laster ohartuko zara ez nagoela holako ipuin liburu bati hitzaurre egoki bat aukeratzeko eran.

Baina, gu bion artean jardutzeko beti da aukera. Iduritzen bazaizu, gutun hau har zazu sarrerazko jardun gisa. Behinik-pehin, zuk zeuk, badakit adi irakurriko duzula eta hori ezta gutxi.

Gerraondoko euskararen zapalkuntzan gure hizkuntza honen alde kontzientziatu ginenok, gaizkileak bezala, isilka ibili beharra genuen, ondo oroituko zaranez. Urte latz haietan euskaltzale izatea bera ere konpromisua zen. Honegatik bataiatu zenuen aldi hura: «Katakunbetako gizaldia». Gaur ordea, gezurra dirudi urte haiek nola aguantatu genituen. Gerotik, euskaltzaletasuna gehitu da, euskararen alderako langintzak bizkortu dira, naiz eta abertzalerik gehienak euskararentzako axolatasun gehiegirik ez izan. Denborak itxaropentsuagoak dira eta lanerako izango dugu aukera hoberik. Baina lehengo aldi ilun haietan elkarri laguntzan ibili ginenori ez zaigu falta solaserako gairik, ezta orduko eta oraingo gogen inguruko zer esanik ere. Ipuin harrigarri guzietan harrigarriena izan zen arbasoen hizkuntza defenditzearren persegitua izate hura.

Elkar ezagutu aurretik bagenekien elkarren berri. Oso guti bai ginen euskal kulturaz eta euskaraz arduratzen ginenak. Gainera, oraindik gazte, jakin nahiaz bibliografia azterketetara joak bai ginen biok. Behar bada, egindakoa birregitera jo genuen behin baino gehiagotan eta ekintzaren irakatsiak bideratu ginuzen sustrai bila. Lehena, norbere

burua hobeto ezagutzeko, norberaren izate sustraien bila beste zerbaitek eroan ginuzen bezala, abertzaletasun suharrara piztu arte. Euskara genuen gure aberri mugatzat eta eremu zabala aurkitu genuen lantzeko. Geroztik ekintza bidetik goaz, ahal duguna alhaldugun neurrian eskainiz.

Bonaparte printzearen mendeurrena betetzean, 1957. urtean, orduko euskaltzaleon artean hots handia izan zuen Irungo «El Bidasoa» astekarian gai hortaz idatzi zenituen artikulu haiek, zenbaki bakoitzean orrialde zabal bat eskainiz. Lanokin separata edo argitalpen berezi bat ere egin zenuela jakin nuenean, ale bat eskatu nizun. Baina guztiz hamabosten bat ale zirenez argitaratuak, nere eskaria heldu orduko agorturik zeuden, eta ezin zenidan bidali. Handik bizpahiru urtera, usterik gutien nuenean, zure eskuizkribuzko eskaintzaz ale bat jaso nuen. Zerorrek goiz batean basurako zakarrontzi hoietako batean aurkitua. Esku onetan erori ez zena hogeagoetan utzi nahirik eman zenidan eta gertakizun tristeari esker, lortu nuen lehen aldiz burutu zenuen saiera lana

Elkar personalki ezagutu, uste dut, don Nemesio Etxanizen etxean ezagutu ginela, euskararen alde zerbait egin nahizko isilpeko batzar haietako batean. Gure buruetatik urruti zeuden ezkertiarra edo eskubitarra nor zen, nork nolako sinesmena zuen, egiazko abertzalea nor, eta antzerako lelokeriak. Denen gainetik kezka batek elkar lotzen ginduzen; gaur oraindik gehien kezkatzen gaituana: euskara.

Dena beharrean genduen euskara, iker lanak, literaturagintzarenak, eskola liburuena... Ordutik, zerbait ladu dugu, baina oraindik ere eginkizunik hobeto dugu.

Ekintza honetan, zure emaitza ezta hain urria izan. Inoitz kantaz eta itxaropenez, urrengo bakez eta itxarope-

nez, txingurria bezala, ekin eta ekin, eten gabeko langintzan. Ekaitz-aro hontan ere hala aurkitzen zaitugu. Baina guretzat noiz ezta izan ekaitz-aro? Ekaitzean ere, Bitañoren zituak bere uztaro: *Atalak* (1967), *Bigarren atalak* (1971), *Hirugarren atalak* (1978), *Ipuinak* (1978),... Aurpegi ona erakutsik, bizitzaren filosofian, nekealdietan kantaz eta itzaropenez atsedena hartuz. Luma ez bada pintzelak eskuan, letraz adierazi ezina «fauve» eskolak eskaini zituen kolore eta estiloaren aukeraz adieraziz. Hortarako ere jaio egin behar. Eta, jaio ere, Izurtzako Tontorran, Mugarrapean. Regoyos-entzat hain ederrak ziren Durangaldeko toki hoiek ezin ba gutiago bertako seme begi zoli batentzat.

Nere haurtzaroko lehen oroimenen artean itsatsirik daukat gure ama abadinoarrak bere sorterrira eroan ninduneko hura. Liluraturik aurkitu nintzen Udalatx menditik Mugarrara arteko ikuspegi zoragarriaz. Anboto, Alluitz, Axtxiki, Untzillatx, Eskubara, zein baino zein haizmendi politagoak. Izan ere, Eibarko zulotik hara hain zen kontraste handia. Geroztik, orduan haur nintzen honek, zenbat galdera ez ote nion egiten gure amari. Nere iduriz, misteriozko kondairaren bat izan behar zuten mendi zutin haiek. Behinik-pehin, Anbotoko sekoria ba omen zen hango haitzulo batean. Hego haizeak jotzen zuen gauetan agertzen omen zen, sua zeriola, Anbototik Gorbealara eta Gorbeiatik Anbotora. Mari Urrika omen zuen izenez. Geroko urteetan ere, esaten nion amari: «Handi egiten naizenean neuk jasoko ditut kondairok. Gainera, egunen batean Anbotoko gailurreraino igoko naiz eta behar bada Mari Urrikaren haitzulo bertara ere helduko natzaizu, ia ezkutapen hoiek zertan diren. Gizon ausarta izatea nahi nuke.»

Egia ezan, gaztarora heltzeaz, ipui askorik bildu ez banuen ere, Durangaldeko haitz-mendi guziok alde guzietatik igotzeari eman nion. Anbotoko Mari Urrika zuloa

ere bisitatu nuen, eta hau aski ez zelarik, Anbotoko Mari Urrika haitzuloa dagoen alderdia inork igo gabea zenez, soka eta gainerako tresnaz hornuturik, egun batean paret hura ere besta bi lagunekin igo. Misteriorik hautsi ote nuen? Ez dakit. Bilabideen eremuetan ez nuen aurkitu Filosofi harririk... Ordurako, inguru haietan esaten zuten, Eibarko pistolagintzak bukatu zuela sorginkeriekin. Dena dela, era batera edo bestera, hor jarraituko du munduaren eta bizitzaren zergatikako misterioak. Maiz iduritzen zait misterio bera dela bizitzaren elikadurarik beharrezkoenak bat eta hoién aurkikuntza gizonen gogo-minaren eragile. Ezkutapenik ez denean, gureak egin du.

Sarrerako jardun gisa egiten dizudan gutun hau beste inork irakurtzen badu —izan ere, nork daki, Kintanak besterik uste izanarren, zu ta ni bezalako beste norbait ere ez ote den liburuen hitzaurreak arretaz irakurtzen dituen—, harrituko da gurekiko solas hontaz. Katakunbetako gizaldikoa baldin bada, agian, oroitzapenak berbiztuko dizkio, eta gogoz ez bada, sentipenez bederen, hurbilduko zaigu, naiz eta belaunaldi berekoa izateak problemak beti era berdinean ulertzeko ahalmenik izan ez. Adinak berak badu hemen ikustekorik eta zu eta ni adin berdintsukoak gara. Ni, nere ustean, ezkutupeko misterio hoiék argitu nahirik eta hautsi nahirik ibili banintzen ere, misterioaren lezea hain zen handia, zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta sakonagoa iduritu zitzaidan. Berandu ohartu nintzen nere kaxkagortasunez. Hala ere, Mari Urrikaren haitzuloan, lezaren hondarra ikutu gabe utzi nuen, misterioa guztiz hautsi gabe. Agian, ipuin biltzen edo hoiék lortzeko irudimena bultzarazten saiatu izan banitz hobe nuen.

Zuk bai, zuk landu duzu ipuingintzaren alorra. Berbiztu diozu haur eta gaztetxoei irudimenaren ahalmena, gogorazi diozu zahartzaroan daudenei aintzinako supazterren giroa, sortu dituzu ikuspegi ederrak, piztu dituzu

pertsonaje berriak,... Kantuz, bakez eta itxaropenez sor-kunde aberatsa duzu zurebaitan.

Bitáño: Herri ipuinen argudioak edo hauen literatur klixeak eta pertsonaiak erabiliko dituzu. Hau da: herri ipuinak oinarri eta zure irudimen askatua gidari. Ipuinen bizi berritzez aritu zera, haurrentzat, gaztetxoentzat eta, maiz, adinekoentzat. Elezahar, kontu berri eta pasaixu. Usario zaharretik, ohitura berriagoetatik edo egunoro gerta ohi direnatastik emeki-emeki, goxo-goxo, hizkera samur-rean adieraziko diguzu. Lan batzuk luberritik sortaraziak, beste batzuk lehengo alor zaharretik. Landare berriak, landare ondo jorratuak, zentzu leunez hobetuak edo berriak: Itzaltzuko zubiondoko pago bidiak, Perutxinen untxi zuria, Lorentzo ta Txatxalin,... hein batean, elezahar berriak, euskara aldetik ere baturantz jarriak, Euskal-Herri zabalean hedatzeko gisan.

Hala ere, zure sorterri inguruko kutsu asko daroate hizkuntzaren aldetik. Honek ere, lehendik argitaratuak dituzun liburu haiekin eta zure auzoko Kirikiñorekin batean on asko egingo dio Durangaldeko haur eta nagusiren alfabetatzeari. Irakurgai aldetik badu non zer bete. Gainera, haurren irudimenak berez duen ames beharrak eztu mugarik. Ezta zure ipuiak ere ez dute mugarik. Gehienbat Durangaldean giroturik egonarren Euskal-Herri zabalera begira daude, euskaldun den edonorrentzat irakurgai atseginak direnez. Herrian eta herriagandik errotuak, herriarentzat behar bai du.

J. SAN MARTIN